

# eh: Euskal Herria

KRONIKA > KILOMETROAK '07

## ELHUYAR ANAIEN ANTZERA, BERGARAN BILDUTAKO UHOLDEAK EUSKARA ARGITU DU

Oihana LLORENTE

**E**LHUYAR ANAIEK WOLFRAMIOA ISOLATZEA LORTU ZUTEN LEKU BEREAN, MILAKA ETA MILAKA EUSKALTZALEK EUSKARAREKIKO DUTEN KONPROMISOA BERRETSI ZUTEN. BERGARAN IZAN ZEN 2007KO KILOMETROAK JAIALDIA ETA JENDE ANDANA BILDU ZEN «ARGI DAUKAGU» LELOAREN BIRAN. BERTAN, IKASTOLEN MUGIMENDUA ETA EUREN HEZIKETA PROIEKTUA EZAGUTARAZI, ETA BIDE BATEZ, SOSAK BILDU ZITUZTEN ARANZADI IKASTOLARENTZAT.

Aranzadi ikastolak hain beharrezko zuen bultzada jaso zuen atzo, bertan ospatu baitzen aurtengo Kilometroak jaiaren edizioa. Gure hizkuntzaren defentsan zein ikastolen alde eginez, jai giroan euskaraz gozatzeko

egun paregabea izan zuten atzo Bergarara hurbildutako milaka eta milaka euskaltzaleek.

Urriko lehen igandearekin batera iritsi zen Kilometroak jaialdia Bergarara, baina oraingoan eguraldia lagun izan zuen. Bigarren aldia da Gipuzkoako ikastolen jaialdi erraldoiak Bergaran geldiuena egiten duena, lehena 1991an izan zen.

«Argi daukagu». Horixe zioten aurtengo ediziorako prestatutako lema zein abestiak. Antolatzaileek argi omen zuten atzoko eguna arrakastatsua izango zela. Esan eta izan, hala-koxea izan baitzen eguna: arrakastaz bete-betea, hala baloratu baitzuten arratsaldean bertako antolatzaileek.

Goiz abiatu ziren lehen euskaltzaleak Bergarara bidean, eta are goizago, antolakuntza lanean ibili behar zutenak. Goizeko bederatzieak bueltan, kolore guztietako petoak soinean zituzten kideak, eta Euskal Herri osotik abiatutakoak nahasten hasiak ziren herrian barrena, denak ikastolarako bidean, bertan baitzen hasiera ekitaldia.

Ibilbidearen irekiera ofiziala 9.30ean izan zen; bertan hainbat agintari eta udal ordezkari bildu ziren. Besteak beste, Batasuneko mahaikide Marije Fulla-

**Batasuneko 23 kideak gogoan izan zituzten harrera ekitaldian. Haientzat izan ziren eguneko lehen txaloak**

ondo, Aralarreko Aintzane Ezenarro eta EAJko Joseba Egibar. Lakuako Gobernuko bozeramaile Miren Azkarate eta bertako Hezkuntza Saileko arduradun den Tontxu Camposek ez zuten huts egin; eta komunikabideen aurrean euskararen normalizazioaz luze eta zabal aritu ziren.

Politika eta herri erakundeen munduko pertsona ezagunetz gaindi, euskara eta hezkuntzarekin lotura berezia duten mugimenduek ere ez zuten hitzordua galdu nahi izan. Han izan ziren LABeko hezkuntzako kideak, edo EHBE edota Udalbiltzakoak ere bai.

### BATASUNA GOGOAN

Ekitaldian ordea, Bergarako alkate den Agurne Barroso izan zen lehena hitza hartzen eta lehen hitzekin batera, Bergaran egoteko beta izan ez dutenak izan zituen gogoan. Bereziki, orduantxe Garzon epailearen aurretik igarotzekoak ziren Batasuneko 23 militanteak. Haientzat izan ziren eguneko lehenengo txaloak.

Alta, gaiz aldatu eta nazio eraikuntzaren alde jo eta ke lanean dabiltzan horiek animatu zituen Barrosok. Gainera, Euskal Herriak beharrezko duen hezkuntza sistema nazionalaren alde lanean jarraitzeko deia egiten zuen.

Haren ondotik, Tontxu Camposek, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakari Arantza Manterolak eta Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanok hartu zuten hitza. Hala ere, une hunkigarriena Edu Muruamendiaren dantzariak eta Uxue Rodríguez abeslariak eskaini zuten beren aurrekuarekin.

Ekitaldiari amaiera emateko, ohikoa den bezala, zinta moztu zuten; bertako protagonista Bergarako hiru belaunaldi barnebiltzen dituen sendi bat izan zen.

Formalidateen ostean, suzeria zerura... eta parranda! Country doinuaren jiran han-hemenka ibili ziren bertaratutako milaka pertsonak.

Behin ibilbidea irekita, pausoz-pauso, urratsez-urrats, sei kilometro pasatxo zituen ibilbidea aurkitu zuten euskaltzaleek beren gozamenerako. Adin guz-



Irekiera ekitaldian ipuin dantzatua egin zuten Aranzadi ikastolaren aurrean.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS